

Domekan hasiko da martxan Bizkaibusen zerbitzu berria

Desagertuko diren eta sortuko diren linea berrien informazioa duten liburuxkak banatuko dira autobusetan • 65 autobus berriak izango dira

I. Maruri Bilbao Bilbo

Etzi hasiko da martxan Bizkaibusen zerbitzu berria. «Aldaketa egitean arazorik sortuko balitz, ahalik eta jende gutxienari eragitea izan da gure asmoa. Izan ere, domeketan bidaia gutxiago izaten dira», azaldu du Itziar Garamendik, Garraio eta Herri Lan diputatuak.

Linea batzuetan aldaketa nabarmenak egingo dira. 280 autobus ditu Bizkaibusek. 65 berriak izango dira. Segurtasun kamerak izango dituzte, eta, martxan jarri ahal izateko, gidariak alkohol proba egin beharko du. Berrietatik bost hibridoak dira. Ezkerraldeko errepideetan ibiliko dira. «Modernoagoak eta praktikoagoak izango dira, erabiltzaileentzat erosoagoak eta baita ekologikoago eta iraunkorragoak». Orain arte aulki gurpildunetarako igo eta jaitsi egiten ziren plataformak izan dituzte autobusek. Berriek arrapala bat izango dute, erabiltzaileak autonomia osoz igo ahal izateko. Gainera, autobus guztiek doako wifi zerbitzua eskainiko dute. Pantaila batean autobusa non dagoen eta zer ibilbide osatuko duen erakutsiko dute.

Duela hiru urte sartu ziren indarrean Bizkaibusen Uribe Kostako esleipen berriak. Orain, gaitzako bost eskualdeetakoak egingo dira. Guztira, 89 linea izango dira. Batzuk elkartu egingo dira, beste batzuetan ordutegia aldatuko da, eta berri batzuk ere sortuko dira. Informazio guztia liburuxka batzuetan jaso dute eta autobusetan banatuko dute. www.bizkaia.net web orrian ere kontsulta daiteke.

BILBO ETA EZKERRALDEA

EHUrako autobus guztietan zerbitzua indartu egingo da erabiltzaile gehien duten orduetan. Bilbo-Barakaldo-Sestao-Errepelega linea berria sortuko da, Bilbo-Sestao-Errepelega eta Gurutzeta-Barakaldo-Errepelega eta Bilbo-Barakaldo batuta; maiztasuna mantenduko da. Bilbo-Gurutzeta



Ezkerraldeko bost autobus hibridoetako bat, Foruen jauregiaren parean. BIZKAIKOHITZA

ta-Barakaldo eta Santurtzi-Barakaldo-Errepelega lineak batu egingo dira; maiztasuna ordu erdian izango da. Santurtzi Bilbogaz eta Trapagarangaz lotzen duten lineetan maiztasuna gutxitu egingo da. Baita Muskiztik Areetara doanean ere.

HEGOALDEKO ESKUALDEAK

Bilbo-Ugao-Orozko linea Bilbo-Orozko lineagaz batuko da. Ordutegi aldatetaz, Areta Renfeko tren hartzeko garaiz iritsiko da autobusa. Bilbo-Etxebarri-Basauri-San Migel eta Bilbo-Etxebarri-San Antonio batu egingo dira. Nerbioi Garaia, Orozko eta Urduña Usansoloko ospitalearekin lotzen dituzten hiru lineak batu egingo dira; tarte komunetan maiztasuna handitu egingo da. Elorriotik Usansoloko ospitalera joan ahal izateko, Durangotik ospitalera eta Elorriotik Durangora doazen linea batuko dira. Izurtza eta Mañaritik Bilborako autobusa sortuko da; baita Arteaga, Zeberio eta Arrigorriaga lotzen dituen ere. Autopistatik doan Bilbo-Galdakao autobusak zerbitzua handituko du astegunetan.

BUSTURIALDEA, LEA-ARTIBAI

Ondarroa-Durango-Bilbo, Gernika-Zornotza-Bilbo eta Gernika-Zornotza-EHU lineek, autobus lasterrak izango dituzte. Hiru

horiek eta Ondarroa-Ermua-Bilbok, gainera, jende gehien dabilen orduetan zerbitzua indartuko dute. Mungia-Gernika eta Gernika-Ibarrangelu lineak batuko dira, maiztasunak mantenduta. Amoro eta Lekeitio arteko linea sortuko da. Gernika, Mendata, Nabarniz eta Errigoitigaz lotzen duten hiru lineak aldatuko dira.

ENKARTERRI

Bilbo-Balmaseda linea indartuko da. Lanestosa-Balmaseda linea moldatuko da, iraupen denbora laburtzeko. Egunean bidaia bat gehiago egingo du. Turtzioz eta Artzentales artean linea berria sortuko da.

TXORIERRI ETA MUNGIALDEA

Mungiatik Bilbora gaueko autobusa egingo da bariku eta zapatuetan, 01:30 arte. Larrabetzu eta Bilbo Artxandako tuneletatik lotuko dituen linea berria sortuko da. Mungiatik Gamiz-Fikara eta Arrietara doazen autobusek jaieguna eta domeketan ibiltzeari utziko diote. Bilbo eta Laukiz arteko asteburuetan eta jaiegunetan ez da ibiliko. Sopela-Mungia-Gatika lineak maiztasuna gutxituko du zapatu arratsalde, domeka eta jaiegunetan: bi ordutik behin ibiliko da. Bermeotik Bilbora autobusa lasterra egingo da, 06:50ean eta 07:50ean.



Liburuaren egileak eta Hezkuntza eta Kultura zinegotzia. BIZKAIKOHITZA

'Max Bilbon bizi da' umeentzako irakurketa errazeko liburua aurkeztu dute

BILBO • «Integrazioa, adiskidetasuna eta norbera bizi den herriarekiko maitasuna» azpimarratzea da *Max Bilbon bizi da* liburuaren helburua. Bilboko Udalak argitaratu du. Irakurketa errazeko nazioarteko jarraibideak hartzen ditu kontuan. Max bederati urte dituen mutiko totema da. Maroko eta Txinako lagun banagaz eta aulki gurpildunetan dabilen beste batez, Bilboko leku enblematikoetan ibiliko da.

Ezkerraldeko pobrezia eta langabeziaren aurkako manifestazioa egingo dute gaur

SESTAO • Eskualdeko langabezia tasa altua, prekaritatea eta pobrezia salatzeke, manifestaziora deitu dute gaurko Ezkerraldeko zenbait sindikatu eta gizarte eragilek. Besteak beste, ELA, LAB, ESK, EILAS eta CNTk babestu dute Sestaon 19:30ean egingo duten protesta. Deialdia egin duten eragileen arabera, 21.500 langabe daude eskualdean, eta, horietatik %23k ez dute inongo laguntzarik jasotzen.

129,5

URTEGIETAN DAUDEN UR HEKTOMETRO KUBIKOAK

Bizkaia hornitzen duten urtegiak 129,5 hektometro kubiko ur neurtu zituzten joan den martitzen. Hala, abenduko euriteei esker, 20 hektometro kubiko ur gehiago jaso dute. Urtegiek euren edukieraren %66,6 beteta daukatela jakinarazi du Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak.



«[Kale edo eraikin bati] Iñaki Azkuna izena jartzeak ez dauka aurrekaririk; eta Azkunaren izaera, ez alkate baten izaera, gurtzeko modu bat da»

Aitziber Ibaigarriaga
Bilboko Udaleko EH Bilduren bozeramailea

Eguneko beste egoitza bat Gurutzetan mendekotasuna duten pertsonentzat

BARAKALDO • Mendekotasuna duten pertsonentzat eguneko beste zentro bat inauguratu dute Gurutzetan. Hogei erabiltzaileentzako lekua dauka. Andoni Rezagorri Bizkaiko Gizarte Ekintzako zuzendariak egoitza berria irekitzeko arrazoi pisutsuak daudela deritzo. Izan ere, Barakaldo, Sestao eta Portugaleten, non zentroak eragina duen, 90 pertsonak eskatu dute leku bat era horretako egoitza baterako.